

Altza

Uztai-Belarrekoak egoitza bila

Uztai-Belar emakume elkarteak Astindari gazte elkartearekin partekatzen du egungo egoitza, San Martzial kaleko eliza atzealdean. Orduz mugatuak eta lokalaren tamainak berak arazoak sortzen dizkie elkarteko emakumezkoek. Beraz, aspalditik dabiltza egoitza bila.



Sara Soria

Uztai-Belar emakume elkarteak duela 30 urte baino gehiago sortu zen eta hoguei bat urte badira Astindari gazte elkartearekin egoitza partekatzen duela. Goizez, Uztai-Belar elkartekoek hamaika ekintza egin ohi dituzte eliza atzealdeko lokalean eta arratsaldean, Astindari gazte elkartearekin partekatzen dituzte. Orduz mugatua dela eta, arazo han-

diak dituztela esan digu Uztai-Belar elkarteko kide Tere Piñero: "Lokala soilik goizez erabil dezakegunez, emakume askok zail dute gure ekintzetan parte hartzea. Izan ere, elkarteko emakume gehienak etxe-koandreak dira eta normalean goizez etxean hamaika lan egin behar izaten dituzte". Elkarteak ikastaro ugari antolatzen ditu: euskara, dantza, soinketa, pintura, psikologia, historia, eskulanak eta abar.

Noizean behin, ekintzak aurrrera eramateko dituzten arazoez jabetuta, Casares kultur etxeak aretoren bat uzten die arratsaldean, dantza ikastaroa egin ahal izateko, adibidez. Hala ere, Casareskoek beraien ekintzetarako aretoa behar dutenean, Uztai-Belarreko emakumeek ezin dute klaserik eman. Bestalde, San Martzialeko egoitza txikiak dela diote elkartekideek. Hori dela eta, ikastaro batzuetan izena eman nahi duten emakume guztientzat ez da tokirik izaten.

Ongi etorri Txema

Altzan urte luzez bizi izandako Txema Auzmendi Euskaldunon Egunkariako Administrazio Kontseiluako kidea kalean da. Astelehenean, hilak 24, Auzmendi auzoko zenbait taldek antolatutako "Adierazpen askatasunaren alde, Egunkaria itxeari ez; giza eskubideen alde, torturari ez eta presoak etxera" ekitaldian parte hartuko du Altza kultur etxean. Ekitaldian ongi etorria egingo zaio Txema Auzmendi eta baita Martxelo Otamendi Egunkariako zuzendariari ere. Ongi etorriaren ostean, Auzmendi eta Otamendi mahai-inguru batean parte hartuko dute, Mariano Ferrer, Maixus Rekalde eta Javier Arellanorekin batera. Azkenik, Joan Mari Irigoien idazle aldatarrak poema bat irakurriko du. Ekitaldia 20.00etan hasiko da.



Josema Itz de Albeniz

Korrika Kulturala abian

Ostegunean, hilak 27, Korrika Kulturala hasiko da Altzan. Egun horretan Badiolak musika emanaldia eskainiko du Casares kultur etxean. Ostiralean, bestalde, antzezlan bat taularatu da Herrerako auzotegian. Bi emanaldiok 19.30ean izango dira.

euskararen donostia

patronatu



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Haur antzerkia

- "A, e, i, o, u"
Deabru beltzak
Martxoaren 23an, 18.00etan
Antzoki Zaharrean
Martxoaren 29an, 17.00etan
Ernest Lluch Kultur Etxean

Pailazoak

- "Hau desastrea, zenbat traste!"
Kike, Blas eta Jonas
Martxoaren 22an, 18.00etan
Intxaurren Berri Kultur Etxean

Musika

- Pier Pol Berzaitz eta bere musikariak
(Carlos Jiménez, Luis Camino, Maitetxu Aldarregia, Pascal Garde eta Txema Garcés)
Iparralde bertan, Iparraldeari eskainitako jardunaldien baitan
Martxoaren 27an, 20.00etan,
Koldo Mitxelena Kulturuneko Areta Nagusian.

Antzerkia

- III Donostia Antzerki Saria
Martxoaren 27an
Antzoki Zaharrean

euskaraz.net